



Analfabetoa idazle

Agota Kristof

Euskaratzailea: Eskarne Mujika Gallastegi

Bilduma: Narrazio Saila

Generoa: Narrazio autobiografikoak

SALNEURRIA (BEZ bame): 12,50 €


ISBN: 978-84-9868-639-5

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 56

Koadernaketa: paperezko azala

ARGITALPEN DATA: 2020ko azaroaren 5a



Sinopsia

Hamaika atal laburretan jasotzen ditu egileak bere bizitzaren une erabakigarrienak. Jaioterri izan zuen Hungariatik Austriara, eta handik Suitzara emigratu zuenean lau hilabeteko bere alabarekin, hungarieraz irakurtzen zuen, eta asko; baina gero, frantsesez –alegia, erbestearen hizkuntzan– idatziko du bere literatur obra osoa. Liburu honetan, ama hizkuntzaz eta “hizkuntza etsaiez” dihardu (alemana eta errusiera, baita frantsesa bera ere) besteak beste, idazkera minimalista batez ondutako kontakizun autobiografiko zorrotz, gupidagabe eta doi batean.

Oroimen eta bizipen propioez –eta oroimen eta bizipen haiei buruzko azterketa zorrotzez– literatur esperientzia hunkigarri bezain gozagarrria eraikitzeko gauza izan diren idazle maisu-maistren multzoan dugu, betiko, Agota Kristof.

**EUSKARAZ 10.000 ALETIK GORA SAL DITUEN
KOADERNO HANDIAREN EGILEARENA**

Egileaz

AGOTA KRISTOF (Csikvánd, Hungaria, 1935 – Neuchâtel, Suitza, 2011) Varsoviako Ituneko soldaduek, sobietarrak buru, 1956ko Hungariako Iraultza zapaldu zutenean, idazleak, hogeitabat urte zituela, ihes egin zuen jaioterritik, senarrarekin eta lau hileko alabarekin, aurrena Austriara, eta ondoren Suitzara (Neuchâtel). Han frantsesez (berak hizkuntza etsai deitzen dio) idazten hasi zen, aurrenik poesia eta antzerkia, baina bere narrazioek (kutsu autobiografikokoak beti) ekarri zizkioten onespina eta ospea mundu osoan. Horietako batzuk argitaratu ditu ALBERDANIAk euskaraz: *Koaderno handia*, *Atzo*, *Berdin dio*. Horiez gain, beste hainbat obra utzi ditu narrazioaren alorrean (*La Preuve*, *Le Troisième mensonge*, *Où es-tu Mathias?*, *La boîte aux lettres*).